

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Prozedura irekiz eta enkante publikoan besterentzea Lantziego udalerriko 6. poligonoko 276 landa finka

Udalak, 2016ko abuztuaren 4ko osoko bilkuran, erabaki zuen onartzea Lantziego udalerriko 6. poligonoko 276 landa finka, "Las Majadas" izeneko inguruan dagoena, prozedura irekiz eta enkante publikoan besterentzeko klausula ekonomiko-administratiboen plegua, eta, hala, behin plegu hori onaturik, prozedura horren iragarkia argitaratzen da, nahiz eta lizitazioa, pleguaren aurkako erreklamazioak izanez gero, behar beste atzeratuko den.

Kontratuaren objektua- Adierazitakoa.

Lizitazio oinarria. 2.201,76 euroan finkatzen da, eta gehiago eskainita hobetu daiteke.

Agiriak aztertzea. Prozedura honi dagokion espediente osoa udal idazkaritzan dago; interesdunek bertan azter dezakete, egun eta bulego ordu baliodunetan.

Proposamenak aurkeztea. Udaletxeko erregistro orokorrean, hamabost egun naturaleko epean, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bulego orduetan, proposamenak aurkezteko epea bukatzen den eguneko 13:00ak arte.

Eskaintza eredia

«..... jaunak/andreak (helbidea:.....; NAN zk:.....), adinduna baita, bere izenean edo beste honenean (helbidea:.....; NAN zk:.....), jakinik zer baldintza eskatzen diren salmenta kontratuaren esleipenera aurkezteko, hain zuzen ere udalaren 276 landa finka, Lantziegoko udalerriko "Las Majadas" aurkintzan dagoena (6. poligonoan) besterentzekora, konpromisoa hartzen du landa finka hori..... eurotan erosteko, kontratuaren klausula ekonomiko-administratiboen pleguari guztiz lotuta. Halaber jakinarazten du eskaintza horri.....hilabetez eutsiko diola.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Lantziego, 2016ko abuztuaren 9a

Alkatea

GORKA MAULEON OLALDE